

Terminologiari buruzko diziplinarteko solasaldiak Quebec-en



Joan den maiatzean, terminologiari buruzko diziplinarteko solasaldietan parte hartzen, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako, HAEE-IVAPeko, UZEIko eta EHUKo kideak izan ziren Quebec-en. Hiru eguneko jardunaldi hura erakunde hauek antolatu zuten: Université du Québec en Outaouais, Office québécois de la langue française eta Bureau de la traduction erakundeek. Solasaldiaren helburu nagusietako bat terminologiak beste jakintza-arlo batzuekin duen elkarreragina aztertzea zen, eta bide batez, terminologiaren arloko azken aurrerapen teknikoak ezagutaraztea eta aztertzea.

Merkatuari begira

Quebec-en, Kanadan bezala, garrantzi handia ematen zaio hizkuntzen industriari, eragin ekonomiko handia duen sektorea baita. Hizkuntza ofizialak frantsesa eta ingelesa diren arren, asko dira beste hizkuntza batzuk hitz egiten dituztenak, jatorri txinatarrekoak, esaterako.

Hizkuntza-aniztasun horrek, behar berriak eragin ditu, eta horiei erantzun egokia bilatu nahian dabilta bertako unibertsitateak, administrazioa eta sektore pribatuko hainbat enpresa.

Eta horiek guztiek lankidetzan aritzeko elkarte bat osatu dute, Cluster moduko bat, esan genezake, sektore bereko eragileak baitira den-denak.

Elkarte hori, Amerika osoko merkatu terminologikoari begira jarri da, eta oraingoz, nahikoa lan badute AEBetako merkatuarekin bakarrik. Ipar Amerikan egindako merkatu-ikerketaren ondorioz, jakin badakite, adibidez, armagintzaren sektoreko 5.000 enpresak baino gehiagok erabiltzen dituela bi hizkuntza edo gehiago bere eguneroko jardunean.

Etorkizuneko erronkak

Gaur egun hizkuntzen industriaren arloan Kanadan aztertzen ari diren gai nagusiak aipatu beharko bagenu, batetik, itzulpengintzari eta terminologiari dagokienez, Europako hizkuntzetatik kanpo (sic) estatistikaz baliatutako itzulpen automatikoak, terminoen erauzketa erdi-automatikoa, terminometria eta itzulpenen zuzenketa direla esan beharko genuke, eta bestetik, edukien kudeaketari dagokionean, hizkuntza anitzeko dokumentuetan egindako bilaketa aurreratuak, dokumentuen kategorizazio automatikoa, eta informazioaren erauzketa dira nabarmentzekoak.

Quebec eta Kanada erreferentzia nagusia izan ditugu beti gure artean terminologiari eta hizkuntzen industriari dagokionean, eta etorkizunerako gure erronkak ezartzerakoan ere, oso kontuan izan beharko dugu han egiten ari diren bidea.

Imanol Urbietta